

Hizkuntzen erabilera sare sozialetan. Euskal Herria

Definizioa

Sare sozialen erabiltzaileek zein hizkuntza erabiltzen duten neurtzen du adierazle honek.

Hedadura

Euskal Herria

Aldagaiak eta kategoriak

- **Eremu geografikoa:** EAE
- **Hizkuntza:**
 - Euskara
 - Gaztelania/frantsesa: gaztelania EAEn eta Nafarroan eta frantsesa Iparraldean
 - Ingelesa edo beste bat
- **Erabilera:** % 0, % 10, % 25, % 50, % 75, % 100

Azpi-adierazleak (gurutzaketak)

Hizkuntzen erabilera sare sozialetan adinaren arabera

Iturria

Inkesta Soziolinguistikoa

Iturriaren ezaugarriak

Inkesta Soziolinguistikoa aztertzen duen unibertsoa Euskal Herriko hamasei urte edo gehiagoko biztanleek osatzen dute.

Inkesta Soziolinguistikoa lau esparru hauen datuak neurtzen ditu: euskara-gaitasuna, euskararen transmisioa, euskararen erabilera eta euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera.

Inkesta Soziolinguistikoa estatistika ofiziala da, eta 020703 kodearekin dago jasota Euskal Estatistika Planean.

Lehen inkesta 1991n egin zen.

Lehenengo hiru inkestak aurrez aurre egin ziren, baina 2006tik aurrera telefonoz egitea erabaki zen.

Iturriaren arduraduna

Inkesta Soziolinguistikoa arduradunak Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Nafarroako Gobernuko Euskarabidea eta Iparraldeko Euskaren Erakunde Publikoa dira.

Lehenengo datua eta maiztasuna

Lehenengo datua: sare sozialetan erabiltzen den hizkuntzari buruz lehen aldiz 2011n galdetu zen.

Maiztasuna: bost urterik behin galdetzen da.

Lagina eta akats-tartea	<p>Azken datu-bilketa telefono bidez egin da 2021eko ekain eta abendu bitartean, galde-sorta egituratu eta itxia erabiliz.</p> <p>Laginketa polietapikoa eta geruzatua izan da, gune soziolinguistikoaren eta udalerriaren arabera, inkestatu beharreko etxebizitzien banaketa hautatzean.</p> <p>Inkestaren emaitzen haztaketa 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren banaketaren arabera egin da, sexua, adina eta hizkuntza-gaitasuna kontuan hartuz lurralde bakoitzean. 8.550 inkesta egin dira guztira: 4.550 Euskal Autonomia Erkidegoan, 2.000 Nafarroako Foru Komunitatean eta 2.000 Iparraldean.</p> <p>Euskal Herriko lagin osoaren akats tartea $\pm 1,38\%$koa da $95,5\%$eko konfiantza mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza maila bererako euskaldunen akats-tartea $\pm 1,82\%$koa da, eta euskaldun hartzaileena eta erdaldunena $\pm 1,82\%$koa.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoan lagin osoaren akats tartea $\pm 1,76\%$koa da $95,5\%$eko konfiantza mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza maila bererako euskaldunen akats-tartea $\pm 2,09\%$koa da, eta euskaldun hartzaileen eta erdaldunen akats-tartea $\pm 2,49\%$koa.</p> <p>Konfiantza maila bererako laginketa-errorea lurraldearen arabera honakoa da: $\pm 3,74\%$koa Araban, $\pm 2,66\%$koa Bizkaian eta $\pm 2,78\%$koa Gipuzkoan.</p> <p>Nafarrorako Foru Komunitatean lagin osoaren akats-tartea $\pm 2,90\%$koa da $95,5\%$eko konfiantza mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza maila bererako euskaldunen akats-tartea $\pm 3,19\%$koa da, eta euskaldun hartzaileena eta erdaldunena $\pm 3,33\%$koa. Konfiantza maila bererako laginketa-errorea hizkuntza-eremuaren arabera honakoa da: $\pm 4,41\%$koa eremu euskaldunean, $\pm 3,74\%$koa eremu mistoan eta $\pm 5,87\%$koa eremu ez euskaldunean.</p> <p>Iparraldean lagin osoaren akats-tartea $\pm 2,31\%$koa da $95,5\%$eko konfiantza mailarako eta $p=q=50\%$. Konfiantza maila bererako euskaldunen akats tartea $\pm 5,7\%$koa da, eta euskaldun hartzaileena eta erdaldunena $\pm 2,36\%$koa. Konfiantza maila bererako laginketa-errorea lurraldearen arabera honakoa da: $\pm 3,54\%$koa BAMen, $\pm 3,68\%$koa Lapurdin (BAM gabe) eta $\pm 4,48\%$koa Nafarroa Beherean-Zuberoan.</p>
Informazio osagarria	
Argitalpenak eta txostenak	<p>https://www.euskadi.eus/eas_ikerketak/web01-a3eas/eu/</p> <p>http://www.euskarabidea.es/euskara/euskara-nafarroan/datu-sozio-linguistikoak</p>
Galdesorta(k)	<p>http://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_291/opt_1/tipo_8/ti_Inkesta_soziolinguistikoa/temas.html</p>